


# BERRIGARA

21 zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, maiatzak 17




**Heldu dira Pazkuak**

**Ondo  
pasau!!**



**Bergara Rock:**  
"Martxa gustatzen  
zaigulako"



**Deba Ibaia:**  
Gure Ispilu  
zikina



**Don Pedro:**  
Zorionak eta urte  
askotarako!

200.000

**KADETT**

**PZTA. RAINOKO  
BEHERAPENA, INOLAKO BALDITZARIK GABE**

Hil amaiera arte. Bertaio bakoitzerako deskontua.



**TALLERES  
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, 2/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46  
BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEN:  
Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86  
DEBA ARRO LEINTZ BAILARA  
ETA GOIERRI GARAIrako

Kontzesionari Ofizialak  
**OPEL**  
Hobeak esperientziaz

MIKEL MURGIZU



JUAN Mª GARITANO MUNOA  
Merkatal - Artekaria

# ZURE BOTOA



## eusko alkartasuna

BERGARA  
1991



KONTXI IRIZAR URCELEY  
Idazgu - Lanari  
(INDEPENDIENTE)



JUAN GARITANO IRAZABAL  
Baserritarra



RAFAEL AGIRIANO BARANDIARAN  
Fagor-eko Teknikari



JOSE ANTONIO ETXEBERRIA LUARIZA  
Irakasle



JESUS ELORZA GABILONDO  
Idazgu - Lanari



JUAN CARLOS BERRAONDO OYANGUREN  
Industria - Injeniero



BITTOR IRIGOIEN MURUA  
Mediku



ALBERTO BOLIBAR EGIBAR  
Kontu - Ikusgarri




JOSU OREGI ARANBURU  
Euskeralari - Itzultzaile



JOSE IGNACIO MADARIAGA LETE  
Teknikari



JOSE AGIRRE ARENAZA  
Zahar - Saritua



LUIS Mª SOTIL ARRIARAN  
Informatika - Teknikari




JESUS SAN MARTIN MORRAS



NERE MUJIKA BERBELZU



FELIX UNAMUNO BEIZTEGI



EMILIO ACEBO CAÑIZO

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfona: 760397

**Laguntzailea:** Bergarako Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberezar

**Erredakzioa:**

Jon Andueza. Eneko Azkarate

**Maketazioa:**

Edume Arenaza. Jon Andueza

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza

Tfona: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan

Martin Elxepuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.

Urzelai, Mariipi Laskurain, Olaia Inza,

Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel

Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel

Elkoroberezar, Josune Iñarra eta

Xabier Aranburu, Aitziber Arebraga

eta Ainhoa Bikufia

**Argazki laborategia:** A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza,

J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.

Tabares, Txomin Retolaza, Kiñu eta

Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak** Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 2.500 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta erizien erantzunkizunik.



## 17 OSTIRALA

• **Zinea:** "Poli de guarderia" 10.30etan.

• **Jaiak:**

• Arratsaldeko 8etan Bitoriana txoren jeitsiera.

• Arratsaldeko 8.15etan "Arazo -Marrazo" hankaluzek eta "Basoko" fanfarria.

• Arratsaldeko 8.30etan behoko estazioan barrakak irekitzea.

• Gaueko 1etan dantzaldia Plazan "Izadi" taldearekin.

• **Goardiako farmazia:** Egunez: Camacho (Oxirondo Enparantzan)

Gaeuz: Español (Arrasaten)

## 18 LARUNBATA

• **Zinea:** "Poli de guardia" 5, 7.30 eta 10.30etan.

• **Jaiak:**

• Goizeko 9etan marrazki eta margo lehiaketa 14 urtez azpikoentzako.

• Arratsaldeko 5etan Plazan Azkona haur antzerki taldearen emaldia "Kiko, Koko eta Moko".

• Arratsaldeko 8etan Bergarako Erraldoi eta Kirikoan kalejira Udala Txistulari

Bandaren laguntzarekin.

• Gaueko 11etan Plazan dantzaldia "Beratz Band" taldearekin.

• **Goardiako farmazia:**

Egunez: Puy (Barrenkalen)

Gaeuz: Corcuera (Arrasaten)

## 19 IGANDEA

• **Zinea:** "Poli de guarderia" 7.30 eta 10.15etan.

• **Jaiak:**

• Goizeko 9etan Udala Txistulari Bandarekin Alborada.

• Goizeko 11.30etan Plazan Euskadiko Dantza Askatu ixapelketako kanporaketak.

• Eguerdiko 12etan Kultur Etxean "VI, Literatur Lehiaketa" eta "Bergara Garbia eta Osansuntsua" lehiaketen sari banaketa.

• Arratsaldeko 7etan Plazan "Trapu Zaharrak" antzerki taldea.

• Gaueko 10etan suzko zezena.

• Gaueko 11etan "Tarantela" Camp musika Espaloian eta ordu berean Plazan "Lisker" taldea.

• **Goardiako farmazia:**

Egunez: Puy (Barrenkalen)

Gaeuz: Irizar (Arrasaten)

## 20 ASTELEHENA

• **Zinea:** "Poli de guarderia", 7.30 eta 10.30etan.

• **Jaiak:**

• Goizeko 9etan sokamuturra.

• Goizeko 21.30etan haurrentzako jolas parkea Seminarioko patioan.

• Arratsaldeko 5.30etan "Los Incansables" txarangarekin herri Festa.

• Gaueko 11etan "Nueva Alaska" taldearekin dantzaldia Plazan.

• **Goardiako farmazia:**

Egunez: Guallar (San Antonio)

Gaeuz: Amezua (Arrasaten)

## 21 ASTEARTEA

• **Jaiak:**

• Goizeko 9etan Sokamuturra

• Arratsaldeko 2etan herri bazkaria.

• Gaueko 11etan Plazan "Egan" taldearekin dantzaldia.

• Gaueko 12etan Bitoriana txoren igoera.

• **Goardiako farmazia:** Egunez: Puy (Barrenkalen)

Gaeuz: Irizar (Arrasaten)

## 22 ASTEAZKENA

• **Goardiako farmazia:**

Egunez: Mozos (San Pedro)

Gaeuz: Morales (Arrasaten)

## 23 OSTEGUNA

• **Goardiako farmazia:**

Egunez: Camacho (Oxirondo enparantzan)

Gaeuz: Azcoaga (Arrasaten)

# NOTARIA

tokiz aldatu da.

Ibargarai 18-20 an gaude.

Sarrera erreka ondotik.

Barkatu eragozpenak.

# ANDIZIV

ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA

**Errotuloak, igeltseritza  
eta pintura lanak.  
Azulejo erakusketa.**

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxe: 76 00 58 BERGARA



TOSHARE

**ILEAPAINDEGI MISTOA  
ESTILISTA.**

Artekale 29, Behea  
Tfnoa: 76 29 70  
BERGARA

## Jaietako programen banaketa



Jakin dudanez, Bergarako jaietako programa Bergarako etxe askotan jaso dute, eta beti bezala kaletik kanpo, auzoetan bizi garenok programarik gabe gelditu gara (ez dugu etxeetan jaso). Hau beste gauza askorekin ere gertatzen da, adibidez errolda egitera joateko karta ere ez genuen jaso. Honen zergaitia auzo hauetan buzoirik ez izatea eta dendetan kartak jaso beharra izan daiteke. Ez al daukagu auzoetan bizi garenok buzoiak edukitzeko eskubiderik?

Nerea

## ETBk seinalea hobetu behar

Azken aste hauetan telebista kate berriak ikusteko aukera daukagu gure etxeetan. Benetan "ikusgarriak" dira kate berriok, ikusgarriak dinot daukaten imajina garbi eta onagatik, ia-ia bertan daudela esan daiteke.

Horren alboan bi euskal kateak negargarri ikusten dira, lehen gaizki eta orain okerrago, pantaila marraz beteta, kolore eskaxa, sonidoa interferentziaz josita, etabar. Baldintza horietan ez du ezer ikusteko gusto haundirik ematen, eta jakina, hainbeste aukeren artean ondo ikusten direnak hartzen ditugu.

Uste dot batzuk hain ondo ikusten badira, euskeraz ere berdin ikusteko eskubidea eduki dezakegula. Edo horretan ere zigortuak al gaude?

Jose Angel Mikeo



### • ERITETXEAK

Osasun etxea ..... 76 10 82  
Larrialdiak ..... 76 12 94  
Arrasateko ospitalea .... 79 53 00

### • GURUTZE GORRIA

Bergara ..... 76 55 76

### • DYA

Antzuola ..... 76 62 91

### • ANBULANTZIAK

Bergaran ..... 76 13 59  
Gipuzkoako ambulanz. .... 45 87 44

### • SUHILTAILEAK

Zubillagan ..... 78 28 00

### • POLIZIA

Udaltzaingoa ..... 76 14 69  
Ertzaintza ..... 76 53 40

### • GARRAIOAK

P.E.S.A. .... 76 16 46  
Taxiak ..... 76 19 50

### • HIRUGARREN ADINA


Mizpirualde ..... 76 13 68  
Aitonak ..... 76 21 40

### • BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea ..... 76 39 42  
Epaitegia ..... 76 14 72  
Kiroldegia ..... 76 56 41  
Igerilekuak ..... 76 20 51  
Kultur Etxea ..... 76 44 46  
IMI ..... 76 55 49

## Tiira ba!

## Josu Okina



## ❑ San Blaseko Amabirjina berriztua

Bergarako Udala eta Gipuzkoako Diputazioaren ekimenari esker, urteetan zehar gorde den Buiñondoko Amabirjina Donostiako Artelekun berriztatu dute.

XIV. mende bukaera edo XV.aren hasierakoa den eskultura hau balio haundikoa dugu, haurdun dagoen irudi bakarretarikoa bait da. Artelekuko hiru espezialistak jardun dute azken sei hilabeteotan lanean.

## ❑ Isidro Monzon asteazkenean hil

Isidro Monzon, Telesfororen anaia, asteazkenean hil zen Baionan bihotzekoak jota. 83 urte, arkitektoa, abertzale eta euskaltzale fina zen Isidro. Ostiral honetan omenaldia eta hileta elizkizunak egin dira Bergaran, non Isidoren zerraldoa lurperatu duten.



## ✓ Ludoteka eta udalekuak

Astelehen arratsaldean inauguratu zuten Ludoteka. San Martin plazako Aranzadi Ikastolako egoitzako bigarren pisuan dago. *Txintxerriña* Elkartearen ardurapean, astelehenetik ostiralera bitartean irekiko da, 5.30etatik 7.30etara. Momentuz 88 haur apuntatu dira. Gogoratu izena emateko Ludotekara joatea besterik ez dagoela. *Txintxerriña* Elkartearekin jarraituz, uztaileko udaleku irekiak borobiltzen dihardute. Hiru eta hamabi urte arteko neska-mutikoentzako daude zabalik. Udaleku irekiak egunero gauzatuko dira, 10etatik 1etara. Parte hartu nahi duenak 3.000 pzta. ordaindu behar ditu, eta ludotekan eman beharko du izena, maiatzaren 31 baino lehen.



## Bost intsumiso entregatu

Astelehenean Kultur Etxean emandako prentsaurrekoan aurreratu zuten, Bergarako sei gazte intsumiso asteazkenean Donostiara joan ziren, beren buruak Gobernu Militarrean entregatu asmoz.

Bost intsumiso hauek Aitor Alberdi, Xabier Alberdi "Sato", Txerra Aiastui, Mikel Kastelo eta Gotzon Ibarra ditugu. Jon Lazkano ere joatekoa zen, baina azken orduan ez zen agertu.

Asteazkenean mundu osoan Kontzientzi Eragozpenaren eguna ospatzen zela eta, bergararrak Gipuzkoako beste 35 intsumiso eta objetorekin batera entregatu ziren Gobernu Militarrean. Helburua, intsumisioa indartzeaz gain, euren borroka legezkoa dela aldarrikatzea zen. Jakina denez, intsumiso bakoitzarekin lau pertsona autoinkulpatu daitezke, gaztea erabaki hori hartzera bultzatu dutela onartuz. Ondorioz, epaileak intsumisoari ezartzen dion zigor berbera diktatu dezake autoinkulpatuentzat, hau da, urte batetik seira bitarteko kartzela-zigorra.

Gauzak horrela, Aitor, Xabier, Txerra, Mikel, Gotzon eta Jonek Irakaskuntza Ertainetako zentruetako irakasleen artean bilatu zuten laguntza; eta baita lortu ere. Institutuan 20 irakasle autoinkulpatu dira (40tik 20, justu erdia); Lanbide Heziketa Eskolan, berriz, beste lau.

Donostiara joan zirenean, intsumisoak Gobernu Militarrean aurrean manifestatu ziren. Barrura sartu, papel batzuk sinatu eta aske utzi zituzten. Aurrez Bergarako Epailearen aurrean deklaratu bazuten, orain Epaile Militarren erabakien zain gelditzen dira.

# HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA  
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57  
BERGARA

# ERREKI

ERRETEGIA

TXITXARRO ETA SAIHESKI JANA  
ASTEBUKAERETAN

Fraiskozuri Enparantza  
Tfnoa: 76 38 51

BERGARA

# IRUDI

Erlojutegia  
Bitxitegia

San Pedro 11  
Tfnoa: 76 51 65

## Argazki leihaketaren irabazleak

Dagoeneko ezagunak dira Bergara Hiria Argazki Leihaketaren irabazleen izenak. Azkenean, berrogei lagunek hartu zuten parte. Lehenengo saria, Javier Pedro Fernandez getxotarraren *El Baúl* lanak jaso du. Bigarrena, Zarautzeko Fermin Etxebarriaren *Sakoneta* obrak; eta hirugarrena, Iñaki Caperochipi zarautzarraren *Foto número 3* delakoak. Bergarako partehartzaile onenaren saria Benito Canterorentzako izan da, Ipisti Erreka lanagatik. Eta sari berezia, azkenik, Jose Agustin Gurrutzagaren San Pedro obrak jaso du. Igandean, Kultur Etxeko bigarren solairuan izango ditugu ikusgai lehiaketan aurkeztu diren argazkiak.

□ **Aurrekontuak**  
Dirudienez, hurrengo Udalbatza osatu eta gero onartuko dira 1991rako aurrekontuak. Udal Hauteskundeak pasa arte itxaron beharko dugu, beraz, bergararron xoxak zertan emango diren jakiteko.

□ **Kanposantu berria**  
Martin Azkarate arkitektoak egindako San Josepeko kanposantu berriaren maketa aurki Kultur Etxean izango dugu ikusgai. San Josepe baserria eta bariantearen artean eraikiko den hilerriak 170.000 milioi pzta.ko aurrekontua du. Ez du nitxorik izango, eta bertan kabituko diren 1.100 zerraldoak lurperatu egingo dira.

□ **Araneko zabortegia**  
Udaleko obra eta Hirigintza Batzordearen aginduz, Araneko zabortegiko jabeek oinarrian orma edo uhari bat eraiki, erreka urak desbideratu eta zabortegia zelai batez estali beharko dute.



## Obrak Deba Ibaian

Lan Hidraulikoen Zuzendaritza Orokorra baimena eman du Zubieta eta Agorrosineko zubien arteko tramoan obrak egiteko. Hauen helburua, Zubieta eta Masterreka inguruneetan uholde arriskuak ahal den neurrian txikitzea da. Lanek 100 milioi pzta.ko aurrekontua izango dute, eta urtebeteko epean amaitu beharko dira. Dagoeneko zabalik dago eraikuntza enpresek euren proiektuak aurkezteko epea. Guztiak aztertu eta gero egingo da adjudikazioa. Egin beharrekoen artean, besteak beste 21.227 metro kubiko graba aterako dira Deba ibaitik. Era berean, 547 metroko orma edo harresia eraikiko da, eta baita bi metroko altuera izango duen 274 metroko uharia ere. Aipatu, bestalde, Ibaiondo Ibiltokian 1.830 metro kuadro tinkatuko direla, eta aztertzen ari direla uren saneamendu edo garbiketari ekiteko aukerak ere.



# Jostailuak Aeromodelismoa

Erdiko kale 19, Tfnoa: 79 17 87 ARRASATE


## Beheko Taberna

MENESTRA ETA KONEJOA  
DIRA GURE BEREZITASUNAK  
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

# BERROYA, E. A.

INPRENTA

**OFFSET - TIPOGRAFIA  
ENKUADERNAZIOA**



Komenio 2  
Tfnoa: 76 00 01 - BERGARA

# Deba ibaiaren ibilbide narrasa

**D**uela berrogeitamar urte z geroztik honuntz, oraindik ere, ur putzu ederrak zituen Deba ibaiak Bergarako hiri inguruan. Ibaibide sakon eta zabala batetik, hamar dozena presa edo uharka bestetik, arraintxoan gordelekutzat.

Hala ta guztiz ere, jokaera maltzurak medio, nahiko arazo izan zituen gure hiriak, mende honetako lehenengo hamarkadan hasi eta 1980ra-ino.

Algodonera S.A. enpresa industrialia izan zen ur mozketak gogor bat gure herriari jarri ziona. Guenetxe errota ondoko presa edo uharka, meioratuaz gero zabaldu zuten kanalean zehar zihoazten Bergarako ur gehienak, Matxiategiraino, Bergarako zatirik garrantzitsuena erdi lotuta utzirik. Herriak ateratzen zituen deihadarrak ez zituen aintzakotzat hartu inoiz, Matxiategiko zentrala ez zela errentagarri konturatu arte.

Geroztik, presa edo uharka gehienak kendu zituzten, ez dakit noren aginduz. Erabaki hau ontzat hartu zuen herriak, uraldi handiak eta arriskuak sortzen zirelako.

Pasatuak pasa, ikusmira ezberdinak ditugu orain gure

ibaiari buruz. Urak, berak jarri ditu beretzako ibilbideak eta gainontzeko legeak, Gaztagatik Debaraino askatasun osoz. Hori dela ta, begibistan daukagu ibaia leporaino bete dela. Galdu duela behar ditu-

✓ **“Ibaiaren irudia, bere inguruko bizilagunen ispilua da. Nolako garbitasuna ibai ertzean, halako txukuntasuna bizilekuetan”**

en zabalera eta sakontasuna. Nonnahi eratu dira harri, lur eta ondar batuak, eta beraien babesetan sortu dira hainbat sastraka multzo. Oztopo horiek uraren ibilbide normala aldatu dute, ibai bazterrek lehortu, plastiko eta zapi ustelez hornitu.

Frantsez aldizkari baten irakurri nuen hauxe:

*“Ibaiaren irudia, bere*



Tamalez. ibai bazterrek egoera penagarrian aurkitzen dira; eta denok gara errudun.

*inguruko bizilagunen ispilua da. Nolako garbitasuna ibai ertzean, halako txukuntasuna bizilekuetan”*.


Iritzi hau ontzat hartu nahi badugu, ondorio kaskarraren jabe gara.

Begarako herriak eutsi diezaioke Deba ibaiak daukan itxura eta egoerari? Lotsa apurtxorik badugu ezin gaitetze isildu.

Azken urteetan, Euskal Herriko lurraldeak zehatz txukundu direla ezin genezake ukatu. Etxebizitzak berriztatu, komunikabideak erraztu, telefono eta indar elektrikoak baserrietara eramanez, herriez kanpo zirkulapen ugariak moldatu, besteak beste. Azken hamarkada honetako lanak hor daude gure erakundearen ardurari esker.

Baina... noiz hurbilduko gara ibai eta errekatxoetara? Makina, tresna eta bereziki gertaturiko taldeak ondorio

dituztela, ikusten ez ditugun bitarte, industrialdeko agintariak, zaborkeria ematen duten lantokiak eta etxeetan darabiltzaten garbikariek, ez dute lege-agindurik beteko. Guk, kalean gabiltzanok ere, Deba ibaia geure zakarontzia delakoan bizi gara.



Esan didate, ibaiak, erreka eta itsas bazterrek “Comisarfa de Aguas del Norte” delako erakundearen menpe dagozela. Horrela bada, soluzioak urrun ditugu, alperreko legeak dauzkagu, badakigu, baita, horiengandik irtenbiderik ez dugula izango.

Zer egin? Hor daukagu herria, deihadarka, soluzio eske. Gure agintariak ere, zer edo zer, erantzun beharko dute gai honetaz.

**Antonio Urzelai**

## ANTXONI

### JATETXEA

Ondo pasa jaiak

Fraiskoziuri 7, Tfnoa: 76 20 40 BERGARA

## LAZKANO

### oinetakoak

BARRENKALE 15  
BERGARA Tfnoa: 76 25 03

## Heldu dira Pazkuak Ondo pasau!!

Bai. Hemen daude dagoeneko Pentekostes jaiak. Bost egun eta gauetan zehar, egunerokoak alde batera utzi eta festa giroan murgiltzeko aukera paregabea!

Mila kolore eta soinutan joango zaizkigu orduak. Balantzaren alde batean giroa, musika, dantza. Gora martxia, gora juergia!


Beste aldean zarata, edo kaleetan pilatuko den zikinkeria. Galdetu bestela hurrengo egunean lanera joan beharko dutenei, edo garbitzaileei, edo...

Mila, mila kolore izango ditu Pentekostes 91k. Honako hiru orrialdeetan bildu ditugunak, horietako gutxi batzuk besterik ez dira.

## Zorioneko eguzkia?

Ze eguraldi egingo du Pazkuetan? Seguruenik bergarar askok luzatu du galdera hori egun hauetan. Eta erantzuna bilatu asmoz, guk bi espezialista ezagunen bila jo dugu. Batetik Joxe Itsumendi, inolako aurkezpenik behar ez duen gizona; eta bestetik Pello Zabala, Euskadi Irratian pronostikoak egiten dituenena. Biek ere segurutzat jo dute eguzkia izango dugula bisitari. "Euririk ez; Ipar haizea dabil egun hauetan, eta eguraldiak txarretik onera egingo du. Ez da euri zaparradarik egongo, akaso ziri miria (eta seguruenik hori ere ez). Egunez bero xamar, baina gau alderako jertsea atera behar. Asteburu polita detorrela eman genezake".

Ea ba, pronostikoa mahai gainera bota dute. Asmatuko ote?



## Bitorianatxo, jeitsi eta igo

Denboraren poderioz, Bitorianatxo ezinbesteko pertsonaia bihurtu zaigu Pazkua Jaixetan. Ostiral arratsaldean udaletxera jeitsi, eta asteartean berriro zerua zeharkatu eta Seminarioko teilatura igotzen den arte iraungo du festak Bergaran, Gasteizeko jaietan aritzen den Celedonon tankerakoa dugu. Aurten hamaika urte beteko ditu gure Bitorianatxok. Nola sortu zuten, ordea, gerora tradizio bihurtu den muñekoa? Baditu, bai, bere aurretikoak. Bergaran bertan. Duela hamalau urte, Pazkua jaietarako maskota antzeko bat asmatu beharra zegoela eta, *Txibisto* jaio zen. Baina eztabaida sortu zen haren haren inguruan, pertsona baten oinarritua zegoelako. Artean, pertsona horren senitartekoak bizirik zeudela eta, ideiak ez omen ziela graziaz egin eta...

Kontua da bi urte iraun zituela *Txibistok*. Aldatu, eta *Txirulari* sortu zuten. Hau bai hau. Pertsonifikatu eta guzti egin zuten; Kikio ezagunak hartu zuen bere gain *Txirulari* bezala Jai guztietan zehar kalean gora eta behera jarduteko ardura.


Urtebete iraun zuen bizirik *Txirularik*. Eta orduan jaio zitzaigun *Bitorianatxo*, *Txibisto* eta *Txirularik* lagatako hutsunea betetzeko prest.

Aspaldi Bergaran bizi izandako emakume xeble baten oinarritua dago. San Martin Plazako txoko batean, mahai txiki batekin jarri eta ura eta bolauak (uretan urtzen diren karameloak) saltzen zituen. Marmita handi bat izaten zuen lagun (bolauak bertan urtu eta handik saltzeko), eta baita txakur txiki bat ere. Mihigaiztoek diotenez, nahiz eta txakurrak marmita barruan pixa egin, *Bitorianatxok* berdindin saltzen zuen *nahasketa berezia*. Ortozik eta beltzez jantzita ibiltzen omen zen beti. Angiozarrera bidean bizi zen. Ardoa askotxo gustatzen zitzaiola eta, horrexegatik jarri diote zatoa muñekoari lepotik zintzilik.

Horixe dugu dagoeneko Pazkua Jaixetan ezinbestekoa bihurtu zaigun pertsonaiaren historia. Hamaika, hamaika urte beteko ditu aurten; eta hor ikusiko dugu berriro ere, zeruan gora eta behera, jaiak bezala!

**Edurne Erañaren  
margolari taldearen erakusketa**

*Nahikari*







## Buruhauste ugari Jai Batzordean

Luis Gutierrez, 40 urte; Felix Itigez, 50; Felix Beitia, 38. Lehenengo biek 12 urte daramatzate Bergarako jai Batzordean. Hirugarrenak, dagoeneko hogeitik gora.

Nola sartu ote ziren saltsa honetan... *"Auskalo. Proba egin nahi, urtebeterako sartu eta oindiokan hemen gabilta"*.

Ez omen da erraza programa on bat burutzea. *"Eittia bai, baina aldatzia ez. Gauza berrixak asmatzia ez da erraza. Urtero urtero eitten dogu ekinza berriren bat, aldana bahintzat, baina... ez da egoten aukera haundirik bez. Danetik sartu bihar eta..."*.

Beti ere, norbere buruari hau azkenengo urtea izango dela esaten omen diote. *"Jubilatzeko gogo ikaragarriak. Gañera, guria ez dok Pazkua bakarrik. Urte hasieriak hasten gaituk, Bizar-zuri eta kabalgatiaz. Ordurako ia karnabakal prestatu bihar, karnabakal gañian darelako. Karnabakal pasau, eta ensegida Erramu Zapatua dator. Erramu Zapatuari pasadia ein orduko Pentekostes... eta hori ez da jiria!"*

Gazteak somatzen dituzte faltan Jai Batzordean. *"Bileratara etorri bai, baina azkenengo momentuan hanka ein. Gauza bat Jaixak prestatzia da, baña hori ez da txarrena, rollua gero lan eittia dok! Guk danetik ein juau, baita kaliak mangeriaz garbittu be. De todo, como en botica. Gaztiak eskatu eitten dabe asko, Rock jaialdixa nai dabela eta, baña gero toma, que yo estoy de fiesta! Penia be bada, azkenian ewrak izan biako laukielako protagonistak. Ez dabe halakorik gura, eta guretako be geruau eta zailaua da euren goguekin konektatzia"*.

Esperientzia txarrak ere tokatzen zaizkie parean. *"Jaixak ailegau, egun osua lanian zoruan pare, eta oindio makina bat zirikada soportau behar izaten jittuau. Gaizkiesanak, katxondeua... jentiak ez dau ezebe errespetatzen. Jakingo balaukie zela ibiltzen garen... ahaztuta jaukau benetako Jaixak eittia zer dan!"*.

Lan mordoa egin, eta non ote dago konpentsazioa! *"Eguraldixak lagundu eta jentiak disfratau dabela ikustia"*.



## Estanpa lehiaketak: Ohitura galdua

Urteetan jaietako ospakizunik aipagarrienetarikoa, asteartean, kuadrilen egunean, antolatzen zen Estanpa Lehiaketa izan zen. Urteko gertaera sonatuenak erreferentziaz hartuz, ironia eta satiraz jositako karroza ikusgarriak kaleratzen ziren. Ohitura galdu eta jaietako programatik desagertu da: *"oin bi urte ahalagindu ginan berriz bultzatzen, baña bi talde agertu jakun bakarrik, kuadrilla helduak gainera. Gazteik bapez. Asi ke, saiua laga ein giñuan"*, adierazten dute Jai Batzordekoek.



## Bideberrin txoznak topaleku

Aurten ere, Bideberrin jarritako txoznak jaigune garrantzitsuena bihurtuko dira. Bostgarren aldiz jartzen diren honetan, L.H. Eskola, BOTA., Jarrai, Ikasle Abertzaleak, EHE eta DY Akoek eraikitako 6 txozna izango dira. Bertan antolatu diren rock kontzertuek, aipamen berezia merezi dute. Ostiralean, Eskoriatza eta Etsaiak taldeak; Larunbatean, La Perrera, Malaña eta Zarata; eta astelehenerako, Angiolillo, Spok, Zaztada, Daxka, The Fraw Dau eta S.P. bergararrak iragarri dizkigute.



## KORTA-ZAR

**Txokolategia**

**Pintxo eta ogibitartekoen  
espezialitatea**

Barrenkale 16, Tfnoa; 76 20 62

**Zorionak eta ondo pasa  
pazkua jai hauek.**



### Dantza saioak ere protagonista

Heldu zaigu *San Pascual Bailón*, dantzarien Santua; eta aurten ere, dantza saioek hartuko dute, bai, protagonismoa.

Igandean, ohi denez, *Moises Azpiazu dantza taldeak* Dantza Askatu XIV. Euskadiko Txapelketa antolatuko du. 14 urtez azpiko bikoteek, goizeko 11.30etan ekingo diote, lehen hamarrek, arratsaldeko 6etan finala jokatuko dutelarik

*Xamatx dantza taldeak*, bestalde, bere saioak eskainiko ditu ostiral eta astearte eguerdian.



### Jaiak eta bidaiak

Jende askok, batez ere pertsona helduek, jaietan Bergaratik alde egiten dute, lasaitasun bila. *Ecuador* bidai agentzian esan digutenez aurten bergararrek Costa Brava, Madril eta Benidorm aukeratu dituzte Bergarako jaiak pasatu eta berriro lanera indarberrituta itzultzeko.

Bidaia ona egin eta asteazkenara arte!



### Nagixak: hamairu urte eta gero

Aurtengoan hamairu urte beteko dira *Nagixakeko* lagunak kuadrila moduan Pazkua jaietan irtetzen direla. Seguraski eurak ditugu martxan, blusa eta guzti dihardutenen artean beterranoenak.

Erreferentzia bezala asteartean egin ohi den bazkaria hartuz gero, berrogeitabost inguru dira taldean, horietako zortzi bakarrik neskek. "Egun horretan gehixenak elkartzengaz, baita urtian behin azaltzen dan erozein hori be".

Hamairu urte daramatzate bazkari hori Antxonon jaietxean egiten. "Urte baten ein giñuan intentua Antxonon laga eta plazako bazkaira juateko. Apuntau giñan, dana pagauta zeukoun; baña zela poteua asko gustatzen jakun, ze eta berandutu! Ailegau giñanerako jo ta leku danak okupautu. Tarjetekin bankuan desfalkua ein, eta danak berriro Antxoninera. Harrezkero bertan jarraitu juau".

Denboraren joanean, urtean behin egiten duten irteera ere sonatua bihurtu da. "Bai, klasika bat eitten dogu urtian behin, maiatzian, Pentekostes inguruan. Euskal Herriko paisaje bat aukeratu eta haraxe juaten gara eguna pasatzera. Autobusa alkilatzen da. Egunai etxalero eta trakekin emuten jotzau hasieria, eta bueno, ekonomikoki disparatia izaten da! Bi mila pezeta inguruko hamarretakua; gero poteua be mundiala; bazkaixa be por todo lo alto, tirua jo arte. Ondoren poteua hasten da berriro, baña txanpanaz. Eta bastante fin portatzen da jentia beratzirak aldian bueltako autobusa hartzeko orduan. Beiti tokatzen da despistaturen bat, baña..."

Irteera berezia izaten da gainera, neskek ez bait dute joaterik izaten. "Debekatuta daukie etortzia, hasixeratik. Eziabaidak be egon zian horren kontura, baña gehixenek molde klasikoetara jo zeben, ze demontres, hori mutilen irteeria zala eta kitto!".

Direnak direla, *Nagixakeko* partaideentzat sakratua izan ohi da egun hori. "Sagraua. Batzuk inkluso andriakin negoziauta eukitzen dabe egun hori".

Halakoxeak ditugu *Nagixak* kuadrilako lagunak. Aurten hamairugarren aldiz irtengo dira blusekin. Formal ibili!!

ESPOLON



School of English

ZORIONAK

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu .  
Jai ostean udarako ikastaro intentsiboei  
buruzko informazioa jaso.

Ibargarai 31, Barruko plaza Tfnoa : 76 03 53 BERGARA

# Bergara Rock: Hogeitabost urte jo ta jo

**W**ilko Johnson, Crazy Cavan, Ian Gillan (Deep Purple), Orquesta Mondragón, Obús, Barón Rojo, Pixies, Immaculated Fools, Radio Futura, Alaska, El Ultimo de la fila, Duncan Dhu, Barricada, Hertzainak, Itoiz,...


Bergaratik pasatu diren taldeen izenak aipatzen jarraituko bagenu, orrialde osoa beteko genuke ziur. Aldiz, gure herrian ez da sekula talde ugari sortu.

Azken boladan agertu direnak kentzen baditugu, bi eskuetako hatzaparrekin kontatzeko beste ez ditugu aurkituko azken hogeitabost urteetan. Urri xamarra bada ere, herriko talde rockeroen historiari gainbegiradaxo bat emango diogu.

Musikagintza modernoaren lehen urratsak, *Urretxindorrek* eta *Ameslariak* laukoteek eman zituzten 60.ko hamarkadaren hasieran. Rockeroak baino, Bergarako musika modernoaren aintzindariak kontsidera genitzake.

Hamarkadaren bukaeran, Seminarioko ikastetxearen inguruan, Juan Carlos Amasorrainen *Small Pox* taldea sortzen da. Kitarra elektrikoak

eskuetan zituztela, garai hartako gazteriaren zoramenaizan ziren. Bizitza laburra bezain emankorra izan zuen talde hark, beste biri utzi zien testigu: *Clan 5* eta *Los Yetis* taldeei hain zuzen ere. Arruti, Pedro Guayar, Pomelo eta Navarrok osatzen zuten *Clan 5* laukoteak, *Berdury Hall*-eko larunbatetako gauak alaitzen zituen 70.eko hamarkadaren hasieran. Garai hartan, beren musika irrati aparailuetatik ere entzuteko aukera izan zen, Eibarreko irrati batek antolatzen zituen talde gazteentzako lehiaketan parte hartu bait zuten.



*Clan 5* desegin eta, gutxira, Torretxo, Kano, Pedro Guayar, Alfredo González eta Julen Narbaizak, *Juveneko* jaia zela eta, *Kortx* sortu zuten. Hamarkada bukaera arte iraun zuten, tartean, taldean aldaketaren bat jasan zutelarik. Kano eta Pedro Guayarrek, esaterako, taldea utzi eta hauen orde, Mikel Herzog sartu zen. *Xoxoa* disketxeak, disko grabatzea ere, eskeini zien, baina azken orduan atzera egin zuten.



Alfredo, Torretxo, Julen eta Mikel: Kortx. Nor ez ditu gogoratzen?

Mikel Herzog ospetsuak, *Kortx* taldean ibili ondoren, *Sigris*, lehenengo eta *Udaberri* gero, sortu zuen 70.eko hamarkadaren azken urteetan. Lehengoak bizitza laburra izan bazuen ere, *Udaberri* oso eza-guna egin zen garai hartako dantzaldietan. Honekin batera, institutoko gazte batzuek osatutako talde batek, *Seskak*, lehen urratsak ematen zituen Euskal Herriko plazetatik zehar. Fran Iturbe, Aitor Gallastegi, Xabier Labaien, Aitor Aranburu eta Felix Iturbek osatzen zuten taldea, hiruzpalau urte eman ondoren desegin egin zen, taldekide batzuk, Mikel Herzogek sortu berria zuen taldeko partaide izatera pasa zirelarik. Talde honek ez zuen gehiegi iraun.

80.ko hamarkadan, Euskal Herriko bazter guztietan rock taldeak sortu baziren ere, Bergaran ez dugu bat bera ere aurkituko, hamarkada amaiera arte. 1988 inguruan, Torretxok

(urte batzuk lehenago *Kortx* taldean ibilitakoa), lagun batzuekin batera *Angiolillo* sortuko du. Era berean, *Spok* eta *Zaitada* agertuko dira... Honela gaur arte. Egun, Bergarako lokalak, gatzetxoez osaturiko taldeez josirik daude: Aizpun Bila, Ezer Ez, Daxka, S.P., Tode Viwa, Torquemada Raus, Tostones de Bergara, The Fraw Dau, QRS... Askok dira, eta gehiago sortu daitezke...

Honez gain, badira ere, beste herri batzuetako berbenetako taldeetan diharduten bergarar ugari: Aitor Gallastegi, Manu Iztueta eta Aitor Aranburu *Berakatz Banden* ari dira; Xabier Labaien *Lisker* eibartarrekin; Mireia Osinaga *Izadi* Zarautzarrekin... Bergaran, *Ibaiak* taldekoak ere gogor ari dira..., Mikel Herzogek, bestalde, *La Década Prodigiosa* utzi berri, bakarka ekingo dio aurrerantzean...

## Zuhaitzi

Ostiraletik asteartera egun osoan zabalik.  
Gosari goxo-goxoak goizeko 5etatik aurrera

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Espaloia 6, Tfnoa: 76 59 22 BERGARA




## Spok

Valen (kitarra eta ahotsa), Ibon (bajua) eta Imanol (bateria) hirukoteak, *Spock* kapitainaren abenturaz txunditurik, izen bera hartzea erabaki zuen. Ordutik hiru urte pasa direnean, ekitaldi ugari utzi dituzte bidean. Baita Fran Iturbek Zabalotegiko dorrean ekoiztutako maketa bat ere.

Hemezortzi abesti inguruz osaturiko errepertorioa gehitzeko asmoz, lanak uzten dien bakoitzean, igerilekuetan duten lokalean entsaiatzen dute. Azken boladan, Irungo Antirregimen taldearekin batera Euskal Herriko gaztetxeetatik zehar eramango dituzten bira baten murgildurik aurkitzen dira.

Abestiei indarra gehitzeko asmoz, kitarrajole berri bat sartu nahi dute, baina zenbaitzuekin harremanetan jarri badira ere, ez dute aproposarekin topo egin. Etorkizunean maketa berri bat grabatu eta disketxeetara eraman nahi dute. Bitartean, astelehen honetan, Bideberrin, Spok taldearen rock piszineroa dastatzeko aukera izango dugu.



Z  
a  
z  
t  
a  
d  
a

Angiolillo eta Spok taldeekin batera, Zaztadakoak, Bergarako beste edozein talde baino sarriago ikusi ditugu tabladu gainean. Azken aldi honetan, ordea, ez dabilta batere fin, taldekideen lan eta ikasketa arazoak direla medio. Bost dira. Lijo (bajua), lanean ari da; besteak, Poti (bateria), ETEOn; Berasa (kitarra), Burgosen, aparejadore ikasten;

Ander (ahotsa), Leioan, Gizarte Graduatu ikasketak egiten eta Elorza (kitarra), IVEFen ikasteko asmoz, entrenatzen.

Asteburuetan, ahal dutenean, entsaiatzen dute, Zubietako eskoletan.

Bi urte dira, taldea osatu zutela eta harrezkero, zortzi emanaldi inguru burutu dituzte. Aipatzekoa, La Secta bilbotarrekin batera, Institutuan emandakoa, non, zinta bat grabatu zuten. Azkeneko aldiz, Bilboko Gaztetxean, Angiolillokoekin batera jo zuten.

Euskaraz abesten dute eta dozena bat inguru kanta dauzkate; hauen artean, The Clash, Stiff Little Fingers, Bad Religion eta Celibate Rifflers taldeen bertsioak. Hard Core eta Heavya dute gustoko.

Kilometroak 91 dela eta, Bergarako abesbatz eta taldeek grabatuko duten maketan parte hartuko dute...



A  
n  
g  
i  
o  
l  
i  
l  
l  
o


Lau urte dira Forondako baserri batetan, Torretxo (kitarra), Iñigo (bajua) eta Esteban (bateria), taldea osatzeko asmoz elkartu eta entsaiatzeari gogor ekin ziotela. Handik laisterrera, Mutxik kitarra eta ahotsa sartu eta laugarren taldekide bihurtu zen. Izen bat asmatu behar eta, Angiolillo anarkistarena etorri zitzaizaien burura.

Bergarako beteranoak kontsidera genitzake, bai adinez eta baita musikaren munduan eman duten urte kopuruarengatik. Iaz bost kantaz osatutako maketa kale-ratu eta Gasteizko Bideo Jaialdirako, *Gaeko* izenburuko bideoa grabatu zuten.

Larunbatero elkartzen dira Labegaraietako eskoletan entsaiatzeko asmoz. Dena den ez dute inolako pretentsiorik; astialdia gustora pasatzea eta musika hobbye-tzat hartzea da euren nahia.

*Sinber* bezala definitzen dute beren musika, rock 'n roll azkarra. Denetarik entzuten dute, Ruper Ordorika, Rip, REM,..., Siniestro Total galiziarren bertsio bat ere egiten dutelarik.

Aurrera begira, zuzeneko emanaldiak baztertu eta Labegaraietako lokalean kanta berriak prestatzeari ekingo diote...



# Ziripot

Jai alaitsuak  
igarotzea opa dizuego  
bergarar guztioi

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41 BERGARA



**Daxka**

Birritan ikusi ditugu zuzenean, *Juven* eta *Pol Polean*. Jaietan, berriz ere jendaurrean izango ditugu, ematen duten hirugarren kontzertuan. **Iban, Unai, Mikel** eta **Iker**, Bergarako talde gazteena (14-16 urte) osatzen dute eta Daxka izenez kaleratu dira.

Duela urtebete inguru elkartu baziren ere, Gabonak geroztik, Seminarioan dagoen *Elbarrilan*, elbarrituentzako lantegia izandakoaren lokalean daukate *koartela*.

Euskaraz abestutako zortzi kanta daukate eta ingelesez *Bad Religion*-en bertsio bat egiten dute. **Bap, Metallica** eta *Soziedad Alcohólica* bezalako taldeak gustoko dituzte, nahiz eta eurok, "*irtetzen zaiena*" egiten duten.

Daxkakoek entsaiu leku premiarik ez duten arren, argi daukate, Bergaran ez dagoela, nahi beste lokalik, talde guztientzat, "*ezin gaitetzeke kejavu, beste batzuk gu baino egoera kaxkarragotan entsaiatzen dute. Hamabi talde inguru daude Bergaran eta denontzako tokirik ez dago*". Jaietan, txozna jarriko dute Bideberrin, material berria erosteko xoxak biltzeko.

Kontuak kontu, dena den, **Lanbide Heziketa** eskolan ikasten segitzen dute.

**S.P.**

SP bi letra hauen esanahia ez duzue seguraski ezagutuko. *Sevicios Públicos*, horrela ematen dira ezagutzera, **Aitor** (bateria), **Imanol** (bajua), **Martín** (ahotsa) eta **Jose** (kitarra). Eta zergaitik izen hori, galdetuko duzue. Bere logika badauka. Izan ere, komun batzuetan entsaiatzen dute, Seminarioko *Elbarrilan* izandakoaren komunitan, alegia. Esker-rak, taldean igeltseroak badaudela eta lokala ahal den neurrian apaindu dutela.

Gazteleraz abestutako bederatzikantzako errepertorioa jaietan eskeintzeko asmotan dabilza, beti ere kitarrajolea sendatzen bada, duela gutxi tendoiak hautsi bait zituen.

Bergaran sortzen ari diren talde askok ez dutela gehiegi iraungo aitortzen dute: "*askorentzat, kitarra bat erosi, lau tanbor hartu eta taldea osatuta dago. Eta ez da hori, muturreko haundia hartu behar du bat baino gehiagok*".

Hard core zaratatsua baino nahiago dituzte ingeles talde siniestroak, *Sisters of Mercy* eta horrelakoak. Gazteak dira, (18-19 urte), baina beren adierazpenak irakurri ondoren, gauzak argi daukatzela somatu daiteke...



**The Fraw Dau**

Talde gehientsuek izaten dituzte zalantzak izena jartzerakoan. Hauek argi izan zuten hasieratik, nahiz eta deitura topatzerakoan, espirituei galdetu zieten: "*espiritismoa egiten ari ginela, Defraudau antzeko zerbait irten zitzaigun*".

Hortik, ingelesera moldatuz, **The Fraw Dau** izena hartzea erabaki zuten.

Talde ospetsuen kantak moldatzen dituzte, *Pixies*, *The Cure*, *Parálisis Permanente...*, "*gustatzen zaizkigunak eta jotzeko errazak direnak*", eta oraingoz ez dute abesti propiorik.

Bergaran modan dagoen *Hard core* ez dute gustoko, hortan beste taldeetatik bereizten dira. Nahiago dute *Pop-rock*-aren ildotik jo.

Duela urte t'erdi sortu zuten taldea, eta *Zubietan* entsaiatzen dute.

**Íñigo** (bateria), **Jabi** (kitarra), **Gorka** (bajua eta ahotsa) eta **Mikel** (kitarra) dira, Bergarako *defraudauak*.

Astelehenean, sei bertsioz osatutako errepertorioa eskeiniko digute *Bideberrin*...

**Oilagorra**  
taberna

Jai alaiak igaro  
eta ondo pasa  
herriko jaietan

Barrenkale 21, BERGARA




E  
Z  
E  
R  
E  
Z

Bergaran bezala inguruetako auzoetan ere badabilta talde batzuk lanean. Osintxun, bi ari dira. Horietako bat, *Ezer ez* izenaz ematen da ezagutzera. Antzuolar, osintxuar eta bergarar bat elkartu eta rock talde bat osatu. Horixe egin dute, **Gotzon** (bajua), **Andoni** (kitarra) eta **Aitor** (bateria). Bergaran ez bezala, lokal arazorik ez daukate, Osintxuko ikastola zaharrean entsaiatzen bait dute. Urtebete inguru elkarlanean badaramate ere, ez dute zuzenean debutatu, hortarako asmorik orainarte azaldu ez dutelarik: "gure asmoa instrumentuak ondo menperatzea da, gero etorriko dira etorri beharrekoak". Musikatik bizi nahi duten galdetzerakoan, Andonik eta Gotzonek, ezezkoa erantzun dute, "*hobbie bezala hartu nahi dugu*". Aitor, oster, ez da eritzi berdinekoa, "*oso zaila bada ere, gustatuko litzaidake bizia hemendik ateratzea*". Gogo ez zaio falta Aitorri. Nork daki egunen batean, bere idoloak diren Bad Brains, Cock Sparrer edo Minor Threat taldeen mailara helduko ote den...

## Tode Viwa

**David** (bajua), **Roberto** (kitarra), **Ibon** (bateria) eta Ferrolera soldaduzkara joan berria den **Eugeniok** (kitarra), Tode Viwa laukotea osatzen dute. Iazko urtarrilean elkartu ziren eta aurtengo Gabonetatik, elbarrituen lantegia izandakoan, Seminarioan, entsaiatzen dute. Birritan eskeini dituzte zuzenean, gaztelera abestutako lau kanta. Letretan, bizitzako istorioak kontatzen dituzte (kalea, drogak...), eta "*burura etortzen zaigun musika*" egiten dute. Barricada, Los Suaves edo AC-DC bezalako taldeak dituzte gustokoen; hala ere, "*talde pijoak ezik, beste edozein motatako musika entzuten dugu*".

Bergaran talde gehiegi daudela: "*gauzak jendeak uste baino zailagoak dira. Diru asko gastatu beharra dago eta gero, aurrera jarraitzea ez da batere erraza*". Bidea ekinez egiten dela eta, gogor ari dira taldea aurrera ateratzeko ahaleginetan...



**Torkemada Raus, Moko Kroniko**,...izen batzuk aztertu badituzte ere, oraindik ez dute bat aukeratu. Azken bizpahiru hilabeteetatik hona, beste hiru talderekin batera, Zubietako eskoletan entsaiatzen dute, nahiz eta iaztik elkarlanean ari diren. **Gustavo** (bajua) eta **Gorka** (kitarra) bikotea, abestiei ahotsa jarriko dien norbaiten bila dabilta. Bateriajerik ez dute, lan horiek, orainarte, *Ezer ez* taldekoa den **Aitorrek** egin baditu ere.

Rip arrasatearren musika dute gustokoen, baita ere, Trash tankerako taldeak, rock'n rolla orokorrean. Bergarakoak ez dituzte hain atseginak, **Spok** edo **Daxka** ezik: "*azken boladan talde ugari irten badira ere, gehienak nahiko txarrak dira*".

Zuzeneko kontzertuetara taulartzeko ez daude gogoz irrikatzen, "*nahiago dugu, ziur egon. Gauzak behar bezala irtetzen ez bazaizkizu, jarraitzeko gogoak kentzen zaizkizu*". Bitartean, lanak uzten dien tarteak, ondo aprobeztatzen saiatzen dira.

## ETXAGI Jatetxea

Afariak, bazkariak,  
gosariak, jaunartzeak...

Mahasterreka 8, BERGARA



## Fran eta Koldo: Proiektu berriak gauzatzen

**Fran Iturbek (26 urte) eta Koldo Lizarralde (27), musika munduan bide luzea egin dute. Fran, 15 urterekin, Seska sortu zuenetik, Mikel Herzogekin lehenengo, eta gero Los Clan naparrekin eta Jota Kie taldearekin ibilia da. Koldok, Irrintzi taldean jo zuen. Orain, elkarrekin proiektu berri batean murgildurik aurkitzen dira. Hamaika kanta biltzen dituen maketa grabatu berri dute.**



Aizpun-bila taldea, lau osintuarrez osaturik dago, Arthur (Kitarra), Jose Angel (bajua), Iñigo (kitarra) eta Igor (bateria). Udaz geroztik daramate talde bezala. Bat ezik, beste guztiok Bergarako Lanbide Heziketa Eskolan ari dira ikasten. Gabonetatik, Ezer ez hirukotearekin batera, Osintxuko ikastola zaharrean biltzen dira entsaiatzeko.

Ramones eta AC-DC taldeen kanta jotzen dituzte, eurek ez bait dute oraindik abestirik sortu. Bergarako taldeak ez dituzte gustoko, Zatzada eta Spok salbu: "denek egiten dituzte antzeko abestiak, oso monotonoak dira. Gustatuko litzaiguke tankera ezberdinetako taldeak iritea; rokerrak, skatalitikoak,... Beti gauza bera entzuteaz nazkatu iri gaude".

Instrumentoak ondo menderatu arte ez dira plazaratuko, erridikuloaren beldur bait dira: "orain, zarata besterik ez dugu ateratzen".

Franek Zabalotegiko dorrean duen estudioan gogor ari dira egunero lanean: "baztertuta geneukan ideia batzuk gauzatu ditugu Koldok eta biok. Jota Kie taldeko Elortxak ere lan bikaina burutu du, kantei ahotsa jarriaz. Zuzenerako bateria baten bila bagabiltza ere, estudioan, cajaderitmos batekin moldatu gara".

Biak lanean ari dira eta astialdiko orduak egitasmo berria gauzatzen sartzten dituzte: "nahasketak egin bezain laister, disketxeetara bidaliko dugu zinta. Euskal Herrira mugatu beharrean, Madrilera eraman nahi dugu. Gaztelaraz kantatzen dugunez, gure musika kanpoan hemen baino hobeto saldu daitekeela uste dugu".

Franek produkzio lanak egin izan ditu noizbehinka: "Saz Le Bolo, Spok eta Nertha taldeak ekoiztu ditut. SS-

77 arrasatearrekin ere lan egin izan dut. ATB-ko sintonia batzuk, bestalde, neuk egin nituen...".

Talde berriari izenik jarri ez badiote ere, batzuk aztertu dituzte, tartean, Los Suplentes. Pop-Rock-aren ildotik joko dute. Musika ingelesa dute gustokoen, The House Of Love edo The Dragons bezalako taldeak. The Who eta Igi Pop ere.

Zuzeneko debutaren zai, grabatu dituzten hamaika kantuekin konformatu beharko gara.



# ALDOKA-MALDOKA

## Taberna

Formal ibili!



## MEKOLALDE

### Taberna

Zorionak opa nahi dizkizuegu  
jai hauetan

Tfnoa: 76 50 18 BERGARA

## AGIRREBEÑA

Oinetakoak  
Erropa Denda  
Lenzeria


Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

## FESA

### Garraioak

Herrian eta Estatuan zehar  
mota guztietako garraioak.

Tfnoa: 76 21 38 - 76 42 22 BERGARA



**ETXE-  
-AUNDI**

Negozio bazkariak  
E z k o n t z a k  
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

## Zer iruditzen zaizu aurtengo Pentekostes jaietarako prestatu den programa?



Izaskun Gallastegi  
25 urte

Ez dut gehiegi begiratu, baina uste  
dut ahal dena egiten dela. Ondo  
dago.



Santiago Lavaca  
62 urte

Oso ona iruditzen zait. Neuk  
behintzat neure gustoko ekintzak  
aurkitu ditut.



Joseba Lopez  
15 urte

Ondo dago. Beharbada musika talde  
hobeak ekarri beharko lituzkete.  
Bestela, zezenak, sokatira, etab...  
ondo daudela uste dut.



Ines Elorza  
55 urte

Betikoa iruditu zait. Gazteentzako  
ondo dago, baina nagusientzako ez  
hainbeste. Joan zen urtean bi Kanp-  
dantzaldi antolatu zituzten, eta aurtan  
bakarra...

## JAIK OSASUNEZ ETA POZTASUNEZ IGARO

### Bergararrok:

Urtea lanian jardun ondoren Pentekostes Pazkua egunetan zehar animo,  
lasaitasun, eta jaigiro egokia aurkitu dezazuen egitarau zabal hau prestatu  
dugu. Auzo, baserri eta kaletako bazter izkutueta jaiak heldu daitezen  
esperantzarekin. Beraz, bertan parte hartzeko, konbidapena luzatu nahi  
dizuegu, ondo merezi duzuen saria emanaz.



## BERGARAKO UDALETXEA





## Indarkeriak

Ezin ditut burutik kendu. Ez bait dira bat edo bi. Gehiago baizik. Historiaren seme-alaba gara eta indarkeri kontu honetan ederrak pasatakoak ere. G. Aresti zenak kantatu ziguna: "... ez bait didate denborarik ematen eta zaflada guztiak hartzen ditut belarrondo batean!". Antzinagokoetara jo liteke, baina ez du orain merezi. Izan ere, pasatakoa edo begi-bistan dena aipatu gabe, botuen ordainetan bizimodu aurreratu-demokrata-baketsuak lau haizetara salduz noizean behin datozkigunen indarkeria bait da mingarriena ene iritzian. Badirudi, inpernuko deabru guztiak akatu nahi horretan, gustatu zaiela Orwell-en "Anaia Nagusi" haren jokaera: historia berresan edo berridaztearena (drogaren kontra jo ta fuego, baina ludopata pila ereinda; herri honen heldutasun morala goraiatu, baina Europa osoko polizi kopuru handienaz biztanleko... etab.). Gainera, indarkeria horietako bat behintzat desagertarazteko giltzak eskuetan izanda!

Iñaki Mozos



## Hizkuntzaren inguruan zenbait gogoeta

Hizkuntza tresna soziala eta komunikatzeko bidea denez, euskararen berreskurapenak gizartean ematen diren diskurtso sozial ezberdinen garapen eta sendotzearen beharra du; aldi berean, hizkuntzak pentsamenduaren eta emozioen elementu erregutzaila eta egituratzailearen funtzioa betetzen du; beraz edozein hizkuntzaren aurrerapena askaezinezko aspektu bi-koitx honetan oinarritzen da.

Berreskuratze eta garatzearen hizkuntz-produkzio dinamiko eta sinboliko honetan funtzio beharrezko bat hiztun-idazleak betetzen du. Honek desarroilatzen dituen hizkuntz-baliabideak eta esparru sozialetik eskeintzen zaizkionak aztergarriak izan behar dira. Baliabide askoren artean, badago hizkuntzaren bultzatzailea eta berriztatzailea dena: hiztun-idazlearen sortzeko gaitasuna eta baliabidea. Elementu hau aintzakotzat hartuz gero, gizabanakoak hizkuntza horren erregelak eta interpretatzeko bideak ezagutzen dituela onartu behar da. Era berean sortzeko agintza amaigabeak hizkuntzarekin jolastea, hizkuntza haustea, berreraikitzea, gaurko-zea eta etorkizun bihurtzea suposatzen du.

Hizkuntza bizi eta errealitatearen transformatzailea izan dadin, sorketaren diskurtsoa behar du, diskurtso sinboliko honen bidez errealitate ezberdinak adierazi, erakutsi, eztabaidatu eta bersortu egiten bait dira. Hizkuntza horrela hartuta fenomeno dinamizatzaile bihurtzen dugu, hala ere sortze hau zabal eta heterogeneoa izan dadin, hiztun-idazleak disziplinartekotasunetik datuak eta estimuluak jasoko ditu objektu berria, hots, aho eta idatz textuak sorrarazteko.

Aitxus Iñarra



# VID-ART

Bidriera artistikoak


Belanbide z/g. BERGARA

AZOKA PLAZA

Autobus geltokia

Frontoirako bidea

Ibargarai



**Erakusketa:**  
Astelehenerdik Ostiralera, 11 - 3 eta 17 - 20  
Larunbatetan 11 - 3

BIDRIERAK - MURALAK - ISPILUAK  
KRISTAL BISELATUZKO ATEAK - etab.

## BIDRIERA ARTISTIKOEN 1.ERAKUSKETA IRAUNKORRA

### FABRIKAKO PREZIOAK DITUGU

**Azal eiguzu zure ideia  
VID-ARTEk egingo dizu.**

**Enkarguak eta abisuak:**  
Tfnoa: 76 23 30 - 76 41 54  
Fax: 76 41 54 ( Bulego orduetan )  
9 - 14 eta 16 - 20

## Galderak egiteko aukera

Hemendik aurrera orrialde honetan atal berri bati emango diogu hasiera. Bertan irakurleok egiten dizkiguzuen galderak erantzuten saiatuko gara. Egizkiguzu zuk galderak, osasun, inpuesto, lege, edo etxe nahiz kotxearen inguruan, edo... halako mantxa nola kentzen den edo... lagunarekin izan duzun diskusioan arrazola norik duen edo... nahi duzuna. Zuk galdetu, kartaz zein telefonoz, eta gu ahaleginduko gara lehenbaiten erantzun egokia ematen.

**4. Zenbat urte eman zituen Agustin Aranzabalek txirrindularitza propesionalean, eta ze ekipotan egon zen?**

Agustin Aranzabalek 7 urte eman zituen profesionalean 1966n hasi eta 72an

erretiratu zen.

Lehenengo lau denboraldiak Fagorren, eta hurrengo hirurak BICen pasa zituen.

**5. Zenbat dira aurtengo kurtsoan unibertsitatean ikasten ari diren Bergarako ikasleak? Zeintzu karreratan dabil jende gehien? Eta gutxien?**

Unibertsitateko ohizko karrerak egiten 301 lagun dabilta. Bergarrek gehien hartzen dituzten karrerak hauek dira:

Ekonomia eta Enpresa Zientziak (bien artean 48 lagun), Enpresa Ikasketa Teknikoak (32), Injinerutza Teknikoa (38), Zuzenbidea (31) eta Informazio Zientziak (21).

Ez dabil inor ondorengo karrerak egiten: Filologia Hispanikoa, Filologia Romanikoa, Gizarte Laguntzaile eta Fisika. Eta IVEF egiten ere bakarra dabil.

Aparejadore (5) eta Topografia (3) ikasten dutenak, ostera, asko izan ez da ere, Deba Garaiko beste herri guztiak bat eginda baino jende gehiago dira Bergaran.



Euskal Filologia (10) ikasten dutenak ere ia bailarako beste herri guztietan adina daude. (Informazioa: Hezibide Elkarte)

**6. Berrogetahiru urteko emakume bat naiz. Etxean andra-glizonak, bi seme-alaba eta glizonaren ama bizi gara. Datorren udan, oportetan, 15 egunetarako kanpora joan nahi genuke balna amaginarrebak ez du gurekin etorri nahi eta ahal ere ezin du, gainera. Denpora horretan Zaharren Egoitzan egon ahal izango litzateke?**

Ez, egoitzan ez da aldi baterako jenderik hartzen.

Hala ere, badaude beste laguntza batzuk "Pertsona Nagusiak etxean hartzeko".

Zure amaginarrebak beste batzuren etxean pasatu ahal izango lituzke 15 egun horiek. Zeuen lagun baten etxean ere izan liteke, kondizio batzuk betez gero.

Honetarako badaude dirulaguntzak eta onena Gizarte Laguntza Zerbitzura etortzea; bertan emango dizugu informazioa eta egingo behar diren paperak.

(Informazioa: Udaleko Gizarte Laguntza Zerbitzua)

**JUAN MARI LETURIA**

## Harategia eta Txerrikitegia

Jai zorientsuak opa dizkizuegu

San Pedro 24, Tfnoa: 76 12 23

BERGARA

Zubiaurre 23, Tfnoa: 76 28 76

**Mugica**  
**GOZOTEGIA**

Artekale 3, Tfnoa 76 10 34

BERGARA

**KABIA**

**Erretegia -taberna**

Zubiaurre 23 - Tfnoa: 76 23 08  
BERGARA



## Don Pedrok 92 urte igandean

Pedro Garitano, Don Pedrok 92 urte beteko ditu igandean. 1899ko maiatzaren 19an jaio zen, gaur bizi den etxe berean, Zubieta kaleko 8an.

Bi urterekin, "artian amaren gonetan neuala", aldameneko etxean zegoen eskolara bialdu zuten. Handik herriko eskolara; "eta hamabi urterekin Orduñara jua nitzten. Bi urte jesuïtekin; eta gero Santandergo Comillasen beste hamabi urte pasa nittuen apaiz ikasketak eitten".

"Meza berrixa 1927an emon neban Santamaiñan". Konzepziño egun batean, ordea, Cantabria eta Bizkaia arteko mugan dagoen La Calera herrira joateko nonbramentua heldu zitzaion. Bizkaiko La Calera eta Cantabriako El Prado ibai batek banatzen ditu. "Nik biak serbitu nittuen".

1930ean Bergarara itzuli zen. "D. Ignazio Aldanondo zeuan Parroko. Harekin ko-adjutore zeuanak, bere loibiak, utzi ein zeban lan hori. Orduan D. Ignaziok hots ein zostan eta honuntz etorri nitzten; neri berdin jatan Jainkoa han ero hemen serbitzia, bña D. Inaziok insistiru eta...".

Beragarara etorri, eta or-

dituk gure artean izan dugu, azken hirurogetabat urteetan.

Ohitura berezi bat badu gero D. Pedrok, Santa marinarin bataiatutako guztiei bere urtebetetzean etxera deitzea zorionak emateko. "Eske nik parrokiako eliztarrak familixakukak konsideratzen dittut; eta familixatan beti ein izen da hori, baten urtebetetzia danian bestiek zorionak emotia". Parrokiako padroia berak darama, eta hortik ateratzen du informazioa. "Telefonoa baldin badauka hots egiten dotzat, eta bestela erregutu, Jaunai beragatik eskatu, hori beti".

Zaletasuna? Kirola. "Batez be pelotia; eta fubola be bai".

Errealia baju ikusten du aurtengoan. "Aurtengo jagadoriak ez dira kalidadekuak. Hurrengo tenporadarako garbittasuna ein biako da. Ondo pentsatzen jata estranjeruak ekartzia, erakusteko. Bainafijo gelditzeke ez, ke ba".

Arretaz jarraitu zuen Rete-gi eta galartzak jokatu berri duten finala ere. "Akarregi eta zurditokin, geure artian Rete-gi askoz geixau zala komentatzen giñuan. Nik zera uste neban, Galartzak berak ez zittuala hamar tanto be eingo, eta ha-

laxe esan notzuen Berrigarante. Hamaika ein orduko akordau nitzen, ene, toki onian geratu nok!".

Igandean urtebetetzea duen arren, ez du ospakizun berezirik egingo. "Gauza espezialik ezebez. Familixakuek, zeratzen dabena, herak emoten dostena, bestela ezebez".

Urteekin jaiak izugarri aldatu direla uste du. "Lenguak garbixauak zian. Bazien mozkorrak be, baña oin larrei. Norberan osasunai kalte geixau eitten jako oin orduan baño". Don Pedro bera saltzaxoan murgilduko da. "Pelota partiduetara faltatzeko, faltatzeko. Frontoira, pelotarixei zirixa sartzera, hau ein bia zebala hori biharrian... bestela jai gutxi".

Osasunez ondo dabilela. "Jainkuak emoten dostan urtiak hartzeko lain; bizitzeko goguak ugeri, instinto de conservación".

Lehen kapela, sonbrero batekin ibiltzen zen beti. Orain berriz, txapela bat darama buruan. "Somberrerua laga biharra etorri jatan. Burua txikittu eta somberrerua haundi geldittu. Gañera, euzkixakin eta, zahartuta zeuan. Juan zan urtiak hamaika hilabete euki zittuan neretako, enero osua oian ein neban txisako zitalakin; eta orduan, ohian neuala erregiak jausi zien, eta bixitta batek kolonia frasko bat eta txapela erregalau zosten. Horregaittik esaten dot oin niri erre-giek ein nindduela txapeldun!".

Zorionak, beraz, erregeek txapeldun egindako Don Pedrori. Zorionik beroenak eta urte askotarako!

Zertan dihardute ba?

IÑAKI IRIZAR



25 urteko bergararra, duela gutxi Gipuzkoako Mendi Federazioko Ingurugiro Saifeko Ordezkariz izendatu dute.

Leioa eta Oviedoko unibertsitateetan burutu zituen biologia ikasketak; Pol-Poleko Mendia Biziriketako partaidea dugu.

JARDUN ELKARTEA



Duela urtebete, maiatzaren 17an aurkeztu zen Jardun Elkartea herriaren aurrean. Jose Angel Mikeo Lehendakari dela, 350 bazkide inguru ditu Jardunek. Kultur ekintzak antolatzen eta herriko arlo desberdinetan euskara bultzatzen dihardu.



Zorionak Bergarar guztioi, eta bereziki Don Pedrori, bere 92. urtebetetzean.

TOKI-EDER

Taberna  
Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi Tfnoa: 7651 84 BERGARA

## Hau dok barreguria

Telefonuak jo dau ofizinan eta sekretariuak hartu erantzuteko. Honek esaten dotsa ugazabari:

- Jauna, uste dot zureta-ko dala.

- Zer dok hori, uste duala neretako dala? Dok ala ez-tok!



- Eske abots batek esan dau: "Hi izango haiz, astu-oi halakuoi".

\*\*\*\*\*

Fernando Villerle aldera joan zan kazara. Jaki-na da inguru horretan euskeria oso galdua dagola. Zaharrak badakixe baina jente helduak eta gaztiak ez (ikastolia sortu zenetik

zerbaitt gehixao).

Fernando beti euskeraz eittera ohittuta zeuan eta etzekixen euskeria herri hartan hain egoera txarrian zeuanik. Herrixan sartiaz bat berrogeitamabost urte inguruko gizakume bat topau eban eta zerbaitt pre-guntau zotsan euskeraz.

- Eztot entenditzen euskeraz -gizonak.

- Herri honetakuak eztabe euskeraz eitten, ala?

- Hirurogei urtetik gorakuak danak dakixe, baina beherakuak, gutxik.

Fernandok gizonai aurpegira begiratu eta zera esan zotsan:

- Hirurogei urtetik gorako guztiak egitten badabe, zuk pe laster ikasiko dozu, gizon.

\*\*\*\*\*

Lagun batek bestiai:

- Fulanok eukan dana laga jotsak ospitalari.

- Zenbat?

- Zortzi seme.

J. M. Elexpuru

## Ezkioko agerpenak (eta 4): "Etxakun gustau hango jiria"



"Gero urrengo Anjel ta bi-xok fan giñan San Inazio egunian. Gure lengusua Ifubekua euan jesuita Loiolan. Soldauxkia etorkixon da soldau ez joatirren joian Romara. Da ba despeditzera fan giñan urrengo auskalo igual etzala etorriko ta. Erakutsi oskuen Loiola guztia, han bazkaldu giñuen, da gero bazkelostien, etorri zienian autobusok, ba handik Ezkiogara.

Da bueno, gazterixia izugarria; gazte asko. Da etxatan gustau bape San Inazio egunian, eztaa... Jentia sagar puntatxota ixo ta begira. Jira eskasa. San Inazio egunian guri etxakun gustau hango jiria.

Ziero fedia kendu jatan e. Zela zan hori? Izena ikusten ebana... Gero behintzet e maletiak in agertu zan Bilbon. Jesus barrixoi ha izango zan. Akaso lelungan zeoze ikusi zeikien, baiña gero itxura txarreko gauzak. Lelungen jentia errespetu guztiakin egoten zan, da gu geu etorri giñan benetan e, benetan etorri giñan. Bigarrenian gutxi eta hirugarrenian bapez.

Udazkena zan, hegoaizia ebillen da eguraldixa edarra. Neri e guardasola galdu jatan. Zeoze ikusi ero, entzun ero, ein giñuanian e, alkarri beittu ta. Gero ekin zien e, "Madre de Sevilla" ta "Madre de Andalusia" ta, zutittu ta, akordau barik, eta guardasola arbola gañian neukan, da belaunbiko, ta kitto. Nere guardasola nun dan bez. Amabirjiñiak erungo eban ha, ha Amabirjiñiak eruan eban zea, zerura".

Franziska Olañeta. "Bergarako Euskera"tik hartua

\* Oharra: Joan zen astekoan jarri genuen Franziska Olañeta Angiozarko kalean bizi zela. Oker geunden, 1989an hil bait zen.



# HERRAN

# ETXEA

Elektragailuak  
T.B. - Bideoak - HI FI  
Sukaldeko Altzariak

Matxiategi 3, Tfnoa: 76 12 22

# GURIA

## TABERNA

Bidekurutzeta5,  
Tfnoa: 76 20 34

# anezka

Udaberrirako oihalak  
eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25 BERGARA

## □ Pazkuetan Pelota

Pazkuetarako iragarrita dauden pelota partiduek, Euskal Herriko profesional onenak bilduko ditu Bergarako frontoian, tartean Zezeaga eta Etxaniz bergararrak. Larunbatetik asteartera egunero hiru partidu jokatu dira, 4.30etatik aurrera.

**Larunbata:** Etxaniz-Errasti/Ariznabarreta-Maiz II; Galarza III/Tolosa-Urra; Ansola-Alberdi III/Iribarren-Unsain.

**Igandea:** Soroa-Iturza III/ Satrustegi-Aldazabal II; Retegi anaiak/Alustiza-Zezeaga; Urzainki-Andueza VI/Zabala-Mendia.

**Astelehena:** Muntion-Urra/Ansotegi-Salbidea; Bergara II-Arretxe/Unanue-Ertrandonea, Gabilondo-Alberdi III/Loiarte-Andueza.

**Asteartea:** Bergara II-Errasti/Ariznabarreta-Zezeaga; Etxaniz-Galarza III/Ladouche-Tolosa; Soroa III-Mendia/Zabala-Berna.

## □ Futboliña

Igandean, eguerdiko 12etan hasi eta gauerdian, LAMek antolatutako II. Futbolin Txapelketaren azken neurketak jokatu dira, Irizar Jauregiaren atzekaldean egokitutako karpan.

Banakako finala, gauerdian hasiko da eta binakakoa, ordu bete lehenago. 3. eta 4. postuetarako norgehiagokak, berriz, gaueko 11etan banakakoa eta 10etan binakakoa jokatu dira.


# Eskola arteko II. Olinpiada

Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, maiatzaren 25ean Deba Garaiko Eskola arteko 2. Olinpiada antolatuko da Arrasaten, Musakolako Kiroldegian.

Bertan, Bergara, Antzuola, Elgeta, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako neska-mutikoei hartuko dute parte; OHOk 5., 6. eta 7. mailatan ari diren neska-mutikoei, hain zuzen.

Olinpiada hauen helburua ez da konpetitiboa, eguna ondo pasatu eta haurren arteko harremanak sendotzea baizik.

Era berean, antolatzaileek ezohizko kirol eta jokuak indartu nahi dituzte; horrela, herri kirolak, skata, gimkana, ur-jokuak, dokea,



rugbya, ohe-elastikoa, eskalada, arku tiraketa, squasha, ping-poia, etab. bezalako aukerak prestatuko dituzte.

Eskolarteko 2. Olinpiada hauek goizeko 10etan hasi, eta arratsaldeko 6ak arte luzatuko dira. Haur bakoitzak bere bazkaria eraman behar du, kirol jantzi aproposak, eta igerilekuan aritzeko

bainujantzi, txankleta eta txanoarekin batera.

Arrasatera joan-etorria egiteko autobusak antolatuko dira udaletxe eta ikastetxeen artean.

Bukatu aurretik, gogoratu joan zen urtean egindako edizioa Bergaran antolatutako zela, 1.000 neska-mutiko inguru bildu zirelarik.

## □ Baltsa jeitsiera

*Deba ibai garbi baten alde* lemapean, astearte honetan, jaietako ospakizunen barruan III. baltsen jeitsiera egingo da arratsaldeko 8etatik aurrera. Algodonerako lantegian hasi eta Bideberrin amaituko den baltsa jeitsieran bi sari banatuko dira. Helmugara lehenengo iristen denari 15.000 pezeta, eta beste hainbeste, baltsa originalenari. Jeitsiera Eguzkik antolatuko du.

## □ Herri Kirolak

Larunbatean, arratsaldeko 6etatik aurrera, Gipuzkoako Herri Kirol Txapelketa jokatu da Seminarioko patioan. Zazpi modalitate ezberdin antolatuko dira.

Bestalde, San Martin plazan, eskolarteko jokoaren finalak jokatu dira goizeko 9.30etatik aurrera. Futbitoan lehenengo, eta eskubaloian gero, benjaminak eta alebin mailako kirolari gaztetxoak arituko dira.

## □ Txirrindularitza

Igandean, goizeko 9etan Martin Deunaren enparantzan hasita, 1. eta 2. mailako afizionatuentzako LVI. Pentekostes Txirrindulari Saria jokatu da.

## □ Obrak Kiroldegian

Labegarrietako Kiroldegia itxita egongo da ekainaren 3etik 12ra, egurrezko kantxa berria eta barandilak jartzeko. Lanek 14 milioi pzta.ko aurrekontua izango dute.

**KONDE**  
PAÑADEROKUA  
Burdinate 1  
BERGARA

**INFERNUKUA**  
**TABERNA**

Mahasterreka 23

Tfnoa: 76 18 49



**B**ergarako frontoi ondoan, orain Banco Central-a dagoen lekuan, eskola eman zuen urte pila batetan zehar Kontxita Maiztegi. Bera zen eskola hartako maistra bakarra eta aldiko 80ren bat neskatala izaten ei zituen. Guztira, ehundakak dira eskola hartatik pasatakoak eta bere lana eskertze aldera omenaldi bat egin zioten 1969an.

Hemen dakargun erretratu orain dela 55ren bat urte inguru ateratakoa da, eskursino egun batetan. Ez dugu lortu guztien izenik baina gehienak bai. Hona hemen bere izenak:

**Ezkerretik eskumara:**

**Lurrean jarrita:** Garbiñe Oregi (belauniko), Rosita Maiztegi, Hipolita Gallastegi, ezezaguna, Marta Urriategi, Julia Pildain, M. Dolores Peña, Kontxi Garitano, Kontxita Narbaiza, Teresa Urriategi, Ines Arregi, Emilia Moreno eta Zezilia Igarza.

**Erdian aulkian jarrita:** Pilare Mujika, ezezaguna, ezezaguna, Kontxita Maiztegi (maistra), Mari Karmen Lazkano, Paulita Zangitu eta Karmen Lazkano.

**Tente:** Karmen Pildain, Karmen Iarza, ezezaguna, Benita Garitano, Arantza Oregi, Aurora Telleriarte, Begoña Zubizarreta, Irune Azkargorta, ezezaguna, Mari Kruz Urzelai, Maria Pilar Urzelai, Ramonita Agirre, Agustina Larias, Terese Mujika, Presen Lonbide, Irene Larrañaga eta Maria Arrieta.

*Estepan Plazaola*

*Argazkia: Bixente Jauregi*



**ARRANO**  
**Taberna**

**ZORIONAK**  
**ETA ONDO PASA**  
**JAIK**

## Oharra:

Orrialde honetan iragarkiak ez dira ordaintzen.



### ETXEBIZITZA

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnora.
- Pisu salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera.
- Pisu behar dut alki-lerrean. Tfnoa: 764255.
- Pisu behar dut alokairuan. 765837.
- Pertsona bat behar du Mizpildin pisua osatzeko. 765837.
- Pisu salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisu alkitatzen da Bolun. Tfnoa: 763797.

• Pisu salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.

• Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.

• Pisu salgai; garaje eta guzti. 763911.

• Baserria alokatu nahi dugu Bergaran. 763431.

• Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

### LANA

• Eraikuntza materialen biltegi baterako errepresentantea behar da. Deitu lan orduetan: 760141

### DENETARIK

• Ihauterietan galdutako argazki kamara ba-daukazu. Deitu: 763270. Sarituko da.

• IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

### SALDU-EROSI

• Soinu bat salgai. Deitu 764195era.

• 28 urteko pinudia salgai. Terreno eta guzti. 76-1201.

• Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.

• Salgai ski eta bizikleta eramangailua; bi-  
lokarri, eta erretenarekin 762852.

• Egoera onean dagoen R-6 GTL bat erosiko nuke. 770940 (lanorduetan).

• Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.

• *Reflecta Diamator AF* diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9retatik aurrera.

• Kolore biziko MBK mendiko-bizikleta berria salgai. 765580.

## Hildakoak

**Felix Bilbao Bagazgoitia**  
83urte, maiatzak 10an

**Isidro Monzon Olaso**  
83 urte, maitzak 15ean

## BERRIGARA

Eskatu eta etxean

76 03 97

## ALDAI

### Harategia

Espaloia 12, Tfnoa: 76 33 35 BERGARA

## AUTOPULLMANS ARABA

### Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

# TALDE LANEAN INDARTSU



## UDAL HAUTESKUNDEAK 1991

- |  |                                      |
|--|--------------------------------------|
| 1. Victoriano Gallastegi Altube        | 13. Mikel Lete Txintxurreta          |
| 2. F. Javier Gabilondo Gorosabel       | 14. J.Ramon Berezibar Barrutiabengoa |
| 3. Luis Abajo alberdi (Inedep.)        | 15. Arantza Ibarzabal Azkargorta     |
| 4. Xabier Gallastegi Idigoras          | 16. Iñaki Azkarate Bengoa            |
| 5. Koldo Pereira Gonzalez              | 17. Rafael Garmendia Agirre          |
| 6. Andoni Larrañaga Mendizabal         | 18. Agustin Lazpiur Lamariano        |
| 7. Carlos Arrondo Odriozola            | 19. Mertxe Elkoroberezibar Odriozola |
| 8. Xabier Zabaleta Unamuno             | 20. Juan Luis Bilbao Abasolo         |
| 9. Mila Lete Laskurain                 | 21. Yosu Agirrezabal Lete            |
| 10. Luis Mari Gutierrez Elkoru         | 22. M. Carmen Lete Lazpiur           |
| 11. Carlos Gutierrez Oxinalde (Indep.) | 23. Jorge Ilzarbe Lombide            |
| 12. Itziar Zabala Bilbao.              | 24. Jon Mirena Leturia Berasategi.   |



### EMAN BOTOA